

2019/2020 ikasturtea

LAN MODULARRA

EGILEAREN TESTUA

ORTZADARRA TALDEA



Egileak:

Arruti Bereziartua Ainhoa
Arruti Hidalgo Iraia
Artola Zuriarrain Larraitz
Azarola Zubizarreta Maider
Bachiller Aldazabal Johana

AURKIBIDEA

1. Narratibaren aurkezpena.....	2
2. Narratiba sortzeko prozesua.....	2
3. Esperientzia edo ekitaldien lotura.....	3
4. Talde lanaren ebaluaketa.....	6
5. Aipamenak.....	6
6. Bibliografia.....	7
7. Eranskinak.....	8

1. NARRATIBAREN AURKEZPENA

Ortzadarra taldeko kideak gizarte heteropatriarkal honetan aurkitzen diren estereotipo eta rolen barneraketan oinarritutako narratiba digital bat aurkezten dugu. Narratiba honetan 4 arrautza dira protagonistak. Hauek bizitzen dituzten egoeren bidez, metaforikoki haur batek haurtzarotik barneratzen dituen estereotipoak azaltzen dira. Hain zuzen ere, gizartean genero bakoitzari zehazturik dauden estereotipoak adierazten ditugu, hau da, gizona edo emakumea izateagatik gizarteak inposatutakoak. Horrez gain, istorioak aurrera egiten duen heinean, askatasunerantz bidea aditzera eman dugu; bakoitzak nahi duena izateko bidea.

Bideoko protagonista Haizea da eta istorioan zehar besteekin alderatuz bide ezberdin bat daramala ikus daiteke; Haizeak ez dauka gizarteko estereotipoak hain barneratuak eta horiei aurre egiten die.

Gaur egungo gizarteko kideok, generoari dagokionez, marko berean gaudela begibistakoa da; hau da, gizarte heteropatriarkal eta homogeen honetan markatzen diren arauak jarraitzen ditugu. Marko horretatik ateratzen diren pertsonak "arraro" bezala ikusten dira. Hau honela dela ikusirik, Haur Hezkuntzako etapan genero estereotipo horiek apurtzen joatearen garrantzia azpimarratzea izan da lanaren xedea. Gainera, bide honetan aniztasunak duen garrantziaz ohartzeko aukera izan dugu; ikasgai, irakurketa zein hausnarketa bidez. Gure narratiban, honen isla adierazten da.

Gure narratiba honekin, estereotipoak apurtzeak ezer txarrik ez duela erakusteko saiakera egin dugu, hori baita gure helburu nagusia. Horrek duen garrantzia azpimarratzekoa da eta gizartean izan dezakeen eragina guztiz positiboa delakoan gaude. Bestalde, gizarteko eragileek, Haur Hezkuntzako haur baten kasuan familia eta eskola, esandakoaren aurrean erabakitzeko gaitasuna eta eskubidea da lortu nahi duguna. Haurrei pentsamendu aldaketa bat sorraraziz eta aurrez barneratuak izan ditzazketen estereotipoak apurtuz.

2. NARRATIBA SORTZEKO PROZESUA

Lan honen lehen aurkezpenean, guztiz ezberdina izango zela ohartu ginen. Orain arte egindako moduloko lanen oso ezberdina delako. Hau egiten hasterako garaian apur bat galdua sentitu ginen, Tabakalerako hainbat saio jaso arren, ez baigenuen gure burua

kokatzea lortu. Gaiaren aukeraketa nahiko azkarra izan zen arren, hau narratiba digitalean nola adierazi erabakitzea egun luzez luzatu zitzaigun. Gure gaia aukeratu ostean, kanpoko iturriak bilatzen hasi ginen gure usteak errealitatea zirela ziurtatzeko. Bidea argitzen hasi zitzaigunean, berrogeialdia hasi zen. Gaur arte, gure gizartea jazotzen ari den egoerak eragin zuzena du gure lanean. Bakoitzak bere etxean egon beharra dauka eta lan hau gauzatzearen oinarria talde lana izanik, horren zailtasuna aipatzekoa da. Egoera hau berria da guztiontzat eta erronka moduan hartu dugu lan honen jarraipena.

Beste oztopo nagusi bat, gure amaierako produktua gailu bakarrean sortu behar izan dugula da. Honek, prozesu horretan taldeko kide guztiek parte hartzea ekidin du. Gainera, online bidez elkar konektatzeko unean konexio arazoak izan ditugu, gure arteko komunikazioa oztopatuz. Egoera ezohiko honetan lan egiteko modua denentzat berria izan da, hau errendimenduan zailtasun bat izatera iritsiz.

Sorkuntza prozesuari dagokionez, lehen urratsa Brainstorming bat egitea izan zen. Honen bidez, denak geneuzkan ideia ezberdinak elkartu eta aukeraketa bat egin genuen. Hurrengo pausua, lanaren gidoi idatzia osatzea izan zen, gure istorioa osatuz. Gidoia oinarri hartuta, Story board bat egin genuen, hau gauzatzeko, lehenik eta behin kartulina desberdineatan hainbat marrazki irudikatu ziren. Horiek, istorioaren kontaketa ulertzea errazten zuten.

3. ESPERIENTZIA EDO EKITALDIEN LOTURA

Gure lanari ekin aurretik hainbat artikulu eta bideoz hornitu gara. Horretarako, taldekide bakoitzak lan pertsonala gauzatu ostean, elkarjartze bat gauzatu genuen. Testuetatik ateratako hausnarketa eta ideia esanguratsuenak dira hurrengo lerroetan azaldutakoak.

Colas eta Villaciervosek (2007) aurkeztutako ikerketan egungo errealitatea islatzen da eta nerabezaroan estereotipoen barneraketa osotasun batean ematen dela adierazten digute. Hau ikusirik, txikitatik lanketa bat egiten hastea komeni dela ondorioztatu dugu eta horregatik narratiba haurrei zuzendua dago.

Estereotipoen beste eragile nagusienetako bat telebista dela ikusi dugu, azken batean, Belmonte eta Villamón (2008)-ek adierazten digutenez, aztertutako telebistako telesailek generoekiko estereotipo zurrinak aurkezten dituzte. Horrez gain, gaurkotasun

eta freskura itxura eman arren, maskulinitate eta feminitatearen arteko ezberdintasunak areagotzen dituzten diskurtsoak ematen dira. Hortaz, gaur egungo errealitatetan oinarritutako estereotipoak formatu digitalean adierazi nahi izan ditugu.

Lamas (1996)-en arabera, genero kontzeptuak ulertzen laguntzen duena zera da, ustez gizonezkoen edo emakumezkoen ezaugarri "naturalak" diren kontu asko, berez, sozialki eraikitako ezaugarriak direla, biologiarekin loturarik ez dutenak. Haurrek jasotzen duten tratu bereizgarriak, sexu batekoak izateagatik bakarrik, ezaugarri eta jokabide desberdinak sortzen dituzte. Guztiz ados gaude lerro hauek adierazten dutenarekin, azken finean, estereotipoak biologikoki ekartzen ditugun ezaugarriak izan beharrean, gizarteak barneratzera bideratzen dizkigun jarrera, izaera, pentsamendu eta itxura baitira.

Estereotipoak markatzen dituzten beste eragile nagusiak familia eta eskola dira. Familia haurren jakinduriaren oinarri sendoenetakoa da, Ospina eta Montoya (2015)-ak azpimarratzen dutenez, *“La familia es el escenario más importante en la vida de los seres humanos, en tanto allí se comparten valores, significados, modelos, actitudes y formas de ser y de ver el universo, que modelan el comportamiento de los miembros más pequeños y los insertan en el mundo cultural”*. Gainera, familiek eragin handia dute haurren estereotipoen eraikuntzan. Haurra jaio aurretik sexu biologikoak bideratuta hainbat itxaropen sortzen dituzte portaerari, garapenari, gaitasunei eta abarri buruz. Hau da, mutilak sendoak, aktiboak eta inteligenteak izango direla eta neskek berriz, goxoak, sensibleak eta sozialak (Mosteiro, z.g.) . Maccobyk (1980) arestian esandakoa berretsi zuen, hark egindako ikerketek erakutsi baitzuten desberdintasunak zeudela aitek eta amek sexu bateko eta besteko progenitoreei egozten dizkieten nortasun-ezaugarrietan.

Eskola eta familia lotuz, eskolaurreko etapara iristean, familiek seme-alabekiko dituzten jokabide ezberdinek gora egiten dute, haien jokabideak generoaren rolak ezarritakora egokituz (Mosteiro, z.g.). Hori ikusirik, estereotipoen barneraketaren garrantzia aipatu nahiko genuke eta gai horrekiko kontzientzia aregotu.

Eskolako-etaparekin jarraituz, zenbait azterlanen arabera, familiek uste dute desberdintasun handiak daudela mutilen eta nesken artean (Shaffer, 2000). Desberdintasun horiek ikasitako portaera-modu jakin batzuei dagozkie, eta gurasoek beren ondorengoekin ezartzen dituzten elkarrekintza-moduetan oinarritzen dira, azken horren sexu biologikoaren arabera (Barberá, 2005). Ikerketa hauen arabera estereotipoak

belaunaldiz belaunaldi igarotzen dira, hauek portaera jakin batzutatik abiatuta sortzen baitira.

Errealitatean estereotipoak jarraitzen ez direnean, arazoak pairatzeko arriskua dago eta bazterketa jasatera ere irits daiteke. Hori dela eta, gure narratibaren amaiera ideia horri kontra egitera bideratu dugu, hau da, estereotipoak ez jarraitzeak ez duela zertan zerbait txarra izan eta bakoitza den bezalakoa izan behar duela bultzatuz.

Azpimarratutako ideia guzti hauen hausnarketaren ondorio da bideoan azaltzen dena. Guzti hau nola erreproduzitzen den haurretan, azken finean, haurrak nahi duen hori mugatzen baitute familia eta eskolak eta bideoan hori islatzen da.

Teorian ikusitakoak unibertsitatean ikasitakoarekin lotura zuzena duela erreparatu dezakegu. Eskola Inklusioaren Oinarriak irakasgai adibidez, haurren eskubideen inguruko hainbat lege jorratu ditugu. Horiek kontuan harturik, haur bakoitzaren adierazpen askatasuna eta nortasuna eraikitze momentuan, haurra babestua egon behar dela bermatu behar da. Horretarako, estereotipoen apurketan hezte eta hauekiko askatasuna garatzea beharrezkoa ikusten dugu.

Gizarte eta kultura ingurunearen ezagutzan ere estereotipoen barneraketarekin lotura duten hainbat bideo ikusi genituen. Bertan, esate baterako, neska eta mutil rolei eragiten dien jarrerak, arropak zein itxura fisikoa agertzen ziren. Hau kontuan harturik, gure narratiba digitalaren gaia aukeratzeko abiapuntua izan zen. Rol horiek apurtzea edota gizartean onartzea izan da gure beste helburutako bat.

IKT ikasgaiari dagokionez, gure lanaren oinarria izateaz gain, lanean oso presente eduki ditugu bertan ikasitakoak. Narratiba digitala osatzeko baliabide teknologikoak erabili ditugu, horien artean, story boarda, Canva, Adobe Sketch eta iMovie. Irakasgai honekiko aurrez genituen aurre-iritziak kontuan harturik, Haur Hezkuntzan teknologiarik ez genukeela erabiliko esango genuke. Behin hauek ezaguturik ordea, tableta eta ordenagailuetatik at dagoen ikuspuntu bat eraiki dugu eta erabilera egokia emanik, gure laneko baliabide garrantzitsu eta osagarria izan daitekeela iruditzen zaigu.

Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetari dagokionez, gauzak adierazteko moduari eta hitzek duten garrantziari zein konnotazioari

erreparatzeko balio izan digu. Hau, narratibako istorioan erabilitako hitzak aukeratzeko baliagarria egin zaigu.

4. TALDE LANAREN EBALUAKETA

Talde bezala hasieratik ondo funtzionatu dugula aipatzea gustatuko litzaiguke, baina esan beharra daukagu hasieran arrotza egin zitzaigula, sekula elkarrekin ez baigenuen lan egin. Hala ere, ez dugu arazorik izan eta ez da oztopo bat izan taldean elkarlanean lan egiteko.

Kurtsoa aurrera zihoan heinean, beste errealitate (arazo) baten aurrean aurkitu ginen, COVID-19 hain zuzen ere. Honek, eragin zuzena izan du gure lanean, talde funtzionamendua aldatu baitu. Aldaketa honek pertsonalki ez elkartzea eragin du eta horregatik, Skype bidez konektatu gara. Tresna honek gure arteko komunikazioa erraztu du, baina zailtasun batzuk ere eragin dizkigu. Azken finean, konexio arazoak egoteak, gure arteko komunikazioa zailtzen zuen eta horrek lanean zuzeneko eragina izan du. Etxetik atera gabe egoteak psikologikoki gutako bakoitzean sorrarazitakoak efektu zuzena izan du. Hau da, elkartu garen bakoitzean ezin izan dugu bakoitzak bere onena eman.

Bestalde, bakoitza bere etxean egonik, lan indibidualera bideratzen gintuen nahi gabe. Hala ere, Skype bidez konektatu eta ahal den neurrian elkarrekin aurrera egiten saiatu gara (iritziak partekatuz, zalantzak galdetuz...). Entregatu behar den produktua bakarra izanik, azkenengo ikutuak pertsona bakarrak egin beharra ekarri du. Hala nola, irudiak eta ahotsa bateratzea, montajea egitea, animazioa etab.

Lauhilabete hasieran bete genuen errubrika kontuan harturik, gure konpromezuak bete ditugula esan dezakegu. Talde bezala ondo moldatu eta gustora aritu gara lanean, bakoitza bere ekarpenak egin eta ondokoa ulertzen saiatuz.

5. AIPAMENAK

Gure lana aurrera eraman ahal izateko, teoriar aurkitutakoa praktikotasunean aurkitutakoarekin alderatu nahi genuen. Horretarako, eskola batera joatea pentsatu genuen eta bertan haurrei zein irakasleei galderak egin, lagin horretatik hainbat informazio lortuz. Gaur egun bizitzen ari garen egoera kontuan harturik eta berrogei aldian gaudela ikusirik, ezinezkoa egin zaigu hori gauzatzea. Horregatik, informazioa eta estereotipoen

eraketa beste modu batera gauzatu behar izan dugu. Honek lanean zuzeneko eragina izan du, hasieran genuen ideia baztertzera behartu baigaitu eta ondorioz, beste baliabide batzuk erabili behar izan ditugu.

Narratibaren gaia aukeratzea zaila egin ez zitzaigun arren, honi forma ematea bai. Ez genekien ongi nondik hasi eta buelta asko eman ondoren, azkenean, akordio batera heldu ginen eta denon gustukoa izan den bide bat aukeratu genuen. Gai honen inguruan oinarriturik, familia edota eskola bezalako gai konkretuetan zentratzen ziren testuak aurkitzea ez zen oso erraza izan. Guzti honekin, gure lana amaitutzat ematen dugu. Bideoa ikusgai izango duzue gure blogean zein youtuben.

6. BIBLIOGRAFIA:

- Belmonte, J. eta Guillamon, S. (2008). Co-educar la mirada contra los estereotipos de género en TV. *DOSSIER*. Hemendik hartuta: <http://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/20133/35880.pdf?sequence=1&isAllowed>
- Colás Bravo, P., eta Villaciervos Moreno, P. (2007). La interiorización de los estereotipos de género en jóvenes y adolescentes. *Revista De Investigación Educativa*, 25 (1), 35-38. Hemendik hartuta: <https://revistas.um.es/rie/article/view/96421>
- Lamas, M. (1996). La perspectiva de género. *Revista de Educación y Cultura de la sección*. Hemendik hartuta: http://www.inesge.mx/pdf/articulos/perspectiva_genero.pdf
- Mosteiro, M. (z.g). Los estereotipos de género y su transmisión a través del proceso de socialización. *CIFEX- Universidad de Santiago de Compostela*. Hemendik hartuta: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=gi-LwPJvnLcC&oi=fnd&pg=PA239&dq=mosteiro+Los+estereotipos+de+g%C3%A9nero+y+su+transmisi%C3%B3n+a+trav%C3%A9s+del+proceso+de+socializaci%C3%B3n&ots=UxcfOpTCnw&sig=1MIG7b-BAk-WCHgSitU5Z1kdN4#v=onepage&q=mosteiro%20Los%20estereotipos%20de%20g%C3%A9nero%20y%20su%20transmisi%C3%B3n%20a%20trav%C3%A9s%20del%20proceso%20de%20socializaci%C3%B3n&f=false>
- Ospina, M. eta Montoya, E. (2015). Cambios en los estereotipos de género en la familia. *142 textos - y - sentidos*. Hemendik hartuta: <http://revistas.ucp.edu.co/index.php/textosysentidos/article/view/318>

7. ERANSKINAK

- I. **ERANSKINA: Talde fitxa.** Eskuz entregatua
- II. **ERANSKINA: Taldeko konpromezuak.** Eskuz entregatua
- III. **ERANSKINA:**

MODULUKO EBALUAZIOA

1) Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue?
Orokorrean bete direla esango genuke, kontuan hartuz gehienak aniztasunarekin eta irakasleen funtzioarekin lotura dutela. Konfinamendu egoera honek beharbada konpetentziak lortze horretan ahulgunerenbat sorrarazi du.
2) Moduluaren nondik norakoak azaltzen dituen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
Egin beharrekoak nahiko ongi azalduak daude. Hala ere, eranskinekin zalantzaren bat izan dugu. Hauek non jarri eta hauen presentziak garrantzia ote duen adibidez. Gauzak ondo azalduta egon arren, narratibaren formatua (bukaerako bideoa) hobeto zehaztea ideia ona dela uste dugu.
3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa disziplina arteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatua egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei aprobetxua atera diezue...).
Lana aurrera ateratzeko, garaian gure iritzi eta gustuak partekatu ditugu hasiera hasieratik. Tutoreari nahiz irakasleei izan ditugun zalantzak galdetzeko aprobetxatu dugu eta aholkuak eskatzeko ere aprobetxatu dugu.
4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
Hasiera batean, tutorea ez ezagutzeak zalantzak sorrarazi zizkigun arren, bere prestutasuna eta disponibilitatea zoriontzekoa izan da. Bestalde, beste irakasleen inplikazioa egokia izan da eta laguntzeko prest egon dira. Koordinazioari dagokionez, hainbat gertaera egon dira (konfinamenduak eraginda seguraski) non elkarren arteko koordinazioan eta adostasunean hutsuneak agerian geratu diren. Ezin dugu aipatu gabe utzi, konfinamendu egoeran ere, irakasle gehienek komunikazioa zuzena eta erraza izan dela. Tutoretzak esate baterako, bideo deiez egin ditugu eta hauek nahi izan ditugun orduetan izan dira.
5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenukete? Zeintzuk?
Proposatu eta garatu dugun lana egokia dela uste dugu. Azken batean orain arte egindako moduloko lanekin alderatuz ezberdina izan baita. Honek motibazioan eragin dezake ikasleengan. Bestetik, hobekuntzarik planteatu ezker, IKT ikasgaiaren bideoaren

montaiari garrantzi gehixeago ematea proposatzen dugu. Azken finean, ez gara komunikazioko ikasleak eta behar bada taldeko inork ez daki bideo montai bat egiten.

IV.ERANSKINA: Aurkezpenen ebaluazioa.

Eranskin hau, aurkezpenak egin eta geroko ebaluazioa da. Kontuan izanik ez ditugula aurkezpenak egin (konfinamendua dela eta) ez dago eranskin hau.